

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Organismo Autonomoak

ARABAKO FORU SUHILTZAILEAK ERAKUNDE AUTONOMOA

Lehendakaritzaren 17/2017 Ebazpena, urriaren 5ekoa, administrazio bereziaren eskalan, su itzaltze eta salbamendu zerbitzuan, azpieskala teknikoan, inspektoreorde kategorian, karrerako funtzionario sartzeko hautaprobek oinarriak onartzen dituena

Diputatuen Kontseiluaren 859/2016 Erabakiak, abenduaren 20koak, Arabako Foru Suhiltzaileak Erakunde Autonomoaren 2016rako Lan Eskaintza Publikoa onartu zuen, eta Diputatuen Kontseiluaren 62/2017 Erabakiak, otsailaren 14koak, Arabako Foru Suhiltzaileak Erakunde Autonomoaren 2017rako Lan Eskaintza Publikoa, dagozkion hautaketa-prozesuen bidez bete beharreko lanpostuena.

Beraz, hautaketa-prozesu horren oinarriak onetsi dira, eta deialdi bakar batean bildu dira eskainitako lanpostu huts guztiak.

Uztailaren 13ko 8/2016 Foru Arauaren bidez onartutako Arabako Foru Suhiltzaileak Erakunde Autonomoaren estatutuen 15. artikuluekin bat etorritik, eta Administrazio Kontseiluari entzunda, honako hau,

EBAZTEN DUT

Lehena. Arabako Foru Suhiltzaileak Erakunde Autonomoaren administrazio bereziaren eskalan, su itzaltze eta salbamendu zerbitzuan, azpieskala teknikoan, inspektoreorde kategorian, karrerako funtzionario sartzeko hautaprobek oinarriak onartzea, eranskin gisa ageri direnak.

Bigarrena. Erabaki hau eta eranskin gisa ageri diren oinarriak ALHAOn argitaratzea.

Hirugarrena. Ebazpen honek administrazio-bidea agortzen du, eta beronen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da, hau argitaratzen den egunaren biharamunean hasita bi hilabeteko epean, Administrazio Auzietarako Gasteizko epaitegietan, edo, aukeran, berraztertze errekurtsoa, ebazpen hau onetsi duen organo berari zuzenduta, hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikuluan eta Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 122 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritik.

Vitoria-Gasteizen, 2017ko urriaren 5ean

Arabako Foru Suhiltzaileak Erakunde Autonomoaren presidentea
MARÍA PILAR GARCÍA DE SALAZAR OLANO

**ARABAKO FORU SUHILTZAILEAK ERAKUNDE AUTONOMOAREN
ADMINISTRAZIO BEREZIAREN ESKALAN, SU ITZALTZE ETA SALBAMENDU
ZERBITZUAN, AZPIESKALA TEKNIKOAN, INSPEKTOREORDE KATEGORIAN,
KARRERAKO FUNTZIONARIO SARTZEKO HAUTAPROBEN OINARRIAK**

1. DEIALDIAREN XEDEA.

1.1. Oinarri hauen xedea da Arabako Foru Suhiltzaileak Erakunde Autonomoaren (aurre-rantzean, Erakunde Autonomia) administrazio bereziaren eskalan, su itzaltze eta salbamendu zerbitzuan, azpieskala teknikoan, inspektoreorde kategorian, karrerako funtzionario sartzeko hautaprobek oinarriak ezartzea.

1.2. Hautaproba hauen helburua da hutsik dauden hiru (3) inspektoreorde lanpostu betetzea (Saillapeneko A-2 taldea).

2. SARTZEKO SISTEMA ETA HAUTAKETA-PROZESUA.

2.1. Deialdi hau oposizio librekoa eta barne sustapeneko da, hautaketa-prozesua oposizio-lehiaketako sistemaren bidez egingo da, eta prestakuntza eta praktika aldi bat ere egongo da, nahitaezkoa eta baztertzaila, hautaketa-prozesuaren beste fase baten gisa.

2.2. Deialdiarekin lotutako lanpostuak honela banatuta daude:

a. Barne sustapenekoak:

– III. hizkuntz eskakizuneko lanpostu bat (1) (ez-derrigorrezkoa).

– III. hizkuntz eskakizuneko lanpostu bat (1) (derrigorrezkoa).

b. Oposizio librekoa:

– III. hizkuntz eskakizuneko lanpostu bat (1) (ez-derrigorrezkoa).

2.3. Sartzeko sistema bakoitzean ezingo dira deialdi honetako lanpostuei dagozkienak baino pertsona gehiago izendatu.

Nolanahi ere, oposizio libreko lanpostu hutsen kopuruari barne sustapen bidez betetzen ez diren lanpostu hutsen kopurua gehituko zaio.

2.4. Derrigorrezko hizkuntz eskakizuna duten lanpostu hutsetarako izangaiak ez dira hautatutzat joko ez badute hizkuntz eskakizuna deialdi honetako 10. oinarrian aurreikusitako moduan egiaztatzen.

3. IZANGAIEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK EDO ESKAKIZUNAK.

3.1. Oposizio librea.

Onartuak izateko eta hautaprobetan parte hartzeko, ondorengo eskakizunak bete behar dituzte izangaiak:

a) Europar Batasuneko estaturen bateko naziotasuna izatea, edo Europar Batasunak izenpetu eta Espainiako estatuak berretsitako nazioarteko Itunen aplikazioaren indarrez, langileen zirkulazio askea aplikagarri zaion estatu batekoa. Halaber, parte har dezakete Europar Batasuneko kide diren estatuak naziotasuna duten nazionalen ezkontideek, betiere, ez badaude auzi-bidez bereizita edo bananduta, bai eta euren eta ezkontidearen ondorengoek ere, betiere, bikotekideak auzi-bidez bananduta ez badaude, ondorengoak 21 urtez beherakoak zein adin horretatik gorako menpekoak ez badira.

b) Hamasei urte (16) beteta izatea eta derrigorrezko erretiroa hartzeko adinera iritsi gabea izatea.

c) Baztertua ez izana diziplina-espeditante bidez inolako administrazio publiko eta Autonomia Erkidegoetako estatutu- edota konstituzio-organoen zerbitzutik, ezta auzitegi ebazpen edo epai

bidez erabateko edo berariazko gaitasun gabetuta egotea ere kargu publiko edo enpleguetarako, funtzionarioen kidego edo eskalatan sartzeko. Beste Estatu batekoa izanez gero, ez izatea diziplina-zehapenen menpeko edo, berari dagokion Estatuan, enplegu publikorako sarbidea ukatzen dion zigor-kondenarik ez izatea.

d) Goi edo erdi mailako unibertsitate titulua, unibertsitate diplomatura, hirugarren mailako gradu edo prestakuntza titulua edo parekoei dagokien titulazioa izatea edo berau egiteko eskubideak ordainduta izatea, edo edozein lizentziaturako hiru ikasturte oso gainditu izatea.

Atzerriko titulazioen kasuan, horien homologazioa egiaztatzen duen kredentziala eduki behar da.

e) Gidabaimena. Izangaiek C+E gidabaimenak eduki behar dituzte.

f) Lanpostuko lanak betetzeko gaitasun funtzionala edukitzea, oinarri hauen I. eranskinean jasotako salbuespen-taularen arabera. Gaitasun funtzionala praktiketako funtzionario izendatu baino lehen egingo diren proba kliniko eta analitikoaren bidez egiaztatuko da.

3.2. Barne sustapena.

Barne-sustapeneko lanpostuetarako lehiatzen direnek, 3.1 oinarrian ezarritako baldintza orokorrez gain, honako hauek bete behar dituzte:

a) A2 azpitaldeko edo C1 azpitaldeko karrerako funtzionario izatea (Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testuategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren hirugarren xedapen iragankorraren 2. atala).

b) Erakunde Autonomoan jarduneko zerbitzuan edo zerbitzu berezietan egotea.

c) Kategoria horretan hiru urte osatuak izatea.

Izangaiek ez baditu betetzen sistema horren bidez parte hartzeko eskakizunak, eskabidean oposizio libreko sistemaren bidez parte hartzea hautatu duela ulertuko da.

3.3. Izangaiek sistema bakar baten bidez parte hartu ahal izango dute, oposizio libre bidez edo barne sustapen bidez, dagokion eskaeran adierazita. Hautatutako sistema ez bada espresuki adierazten edo deialdi berean bi sistemak ageriz gero, hautagaiak oposizio libre bidezko sistema hautatu duela joko da.

3.4. Arestiko eskakizun guztiak eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunerako eduki behar dira, eta hautaprobek iraun bitartean mantendu, karrerako funtzionario lanpostuan hasi arte.

4. ESKAEREN AURKEZPENEA.

4.1. Hautaketa-prozesuan parte hartu nahi duten pertsonak hogeita egun naturaleko epean aurkeztu ahal dituzte eskaerak, iragarkia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

4.2. Eskaerak Administrazio Kontseiluko presidenteari zuzenduko zaizkio, eta eredu ofizial eta normalizatua aurkeztuko dira, Arkautiko Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren www.arkauteakademia.eus web orrian.

4.3. Onartuak izateko eta hautaprobaren parte hartzeko, izangaiek ondorengo hauek adierazi behar dituzte:

a) Eskakizunak aurkezteko epearen amaierarako eskakizun guztiak eta bakoitza betetzen dituztela adierazi behar dute.

b) Eskaera-orriaren atal guztiak bete behar dituzte. Horretarako, izangaiek ondorengo hauek adieraziko dituzte dagozkien ataletan:

1. Eskatutako datu pertsonalak.

2. Deialdian zein sarbide sistemaren bidez parte hartuko duten.

3. Oposizio faseko ariketak edo probak zein hizkuntza ofizialetan, euskaraz edo gaztelaniaz, egin nahi dituzten.

4. Egiaztatutako hizkuntza eskakizunak.

5. Hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko egin nahi dituzten probak.

6. Lehiaketa fasean alegatutako merezimenduak. Eskaera aurkezteko egunean merezimendu gisa konputagarriak diren zerbitzuak betetzen ari diren izangaiek eskaerak aurkezteko azken eguna ezarri behar dute zerbitzu horien amaiera egun gisa.

7.2.2 oinarrian adierazitako deialdi honetako lanpostu hutsekin lotutako lanpostuak esleitzeko lehenespena. Lehenespen-ordena ezingo da aldatu eskaerak aurkezteko epea amaitu ondoren.

4.4. Datu pertsonalak babesteko araudia betetzeko, hautaketa-prozesua kudeatzeko jasotako datuak Erakunde Autonomoak kudeatutako "Erakunde Autonomoko Inspektoreordeen eskaintza" izeneko fitxategi batean sartuko dira, eta datu horietan sartzeko, datuok zuzentzeko, ezeztatzeko eta horiei aurka egiteko eskubideak egikaritu ahalko dira, Vitoria-Gasteizko Probintzia plazako 5. zenbakiko 2. Solairuan.

Izangaiek berariaz onartzen dute, kontrakorik adierazi ezean, euren datu pertsonalak oinarri hauetan adierazitako helburuetarako eta bertan adierazitako moduan erabiltzea.

5. IZANGAIK ONARTZEA.

5.1. Behin eskaerak aurkezteko epea amaituta, Erakunde Autonomoko Administrazio Batzordeko presidentek (aurrerantzean, Administrazio Batzordeko presidentea) agindu bat emango du, zeinaren bidez onartuko baitira onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrendak, eta ALHAOn eta Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren www.arkauteakademia.eus web orrian argitaratuko dira.

Zerrenda osoa argitaratuko da web orri horretan, baztertuen kasuan horretarako arrazoia-rekin, ariketak Euskal Autonomia Erkidegoko zein hizkuntza ofizialetan egin nahi diren, eta hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko probari dagokionez egikaritutako aukerak.

5.2. Baztertuek edo argitaratutako datuetan okerren bat hautematen dutenek hamar egun baliodun izango dituzte, zerrendak argitaratzen direnetik aurrera, erreklamazioak aurkezteko eta, hala badagokio, egin ahal izan diren okerrak zuzentzeko eskatzeko.

Erreklamazioak egiteko epea amaitu ostean, Administrazio Batzordeko presidentek beste foru agindu bat emango du, zeinaren bidez onartuko baitira onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendak, behin-behineko zerrendetan jasotako datu berberekin, eta Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren www.arkauteakademia.eus web orrian argitaratuko dira.

Oposizio faseko probak egiten diren egunean oraindik ebatzi gabe badaude behin betiko zerrendak onartzeko foru aginduan prozesutik baztertuta agertu ziren izangaiek aurkeztutako errekurtsuak, eragindako pertsonak proba horiek egin ahal izango dituzte, baina ez dute baliorik izango errekurtsu horiek ezesten badira.

Edonola ere, interesdunek hautaprobetarako eskatzen diren betekizunak betetzen dituztela aitortzeko baldintza da haiek egiaztatzea, oinarri hauen arabera aurkeztu behar diren agiriak aurkeztuta. Agirien bidez betekizunak egiaztatu ezean, interesdunak galdu egingo ditu hautaprobaren parte hartzeak ekar ditzakeen eskubide guztiak.

6. EPAIMAHAI KALIFIKATZAILEA.

6.1. Administrazio Batzordeko presidentek izendatuko ditu hautaprobak kalifikatuko dituen epaimahaiko kideak. Izendapen edo hautaketa politikoko langileek, behin-behineko funtzionarioek eta aldi baterako langileek ezin izango dute parte hartu hautaketa organoetan.

Izendapenak ALHAOn eta Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren www.arkauteakademia.eus web orrian argitaratuko dira, onartutako eta baztertutako pertsonen behin betiko zerrendarekin batera.

6.2. Epaimahaiaren osaera orekatua izango da, sexu bakoitzak gutxienez ehuneko 40ko ordezkartza izanik, nola eta ez den behar bezala justifikatzen hala ez dagokiola.

Epaimahaia osatzean errespetatu egingo da espezialitatearen printzipioa, zeinaren arabera epaimahai bakoitzeko kideen erdiek, gutxienez, sartzeko eskatzen den jakintza arlo bereko titulu bat izan behar baitute, eta guztiek ikasketa maila bereko edo goragoko titulu bat.

6.3. Epaimahaiak lehendakari bat eta lau kide izango ditu, bakoitza bere ordezkoarekin. Kideetako bat idazkari izendatuko da.

Epaimahaiko kide izatea norberaren izenean izango da beti, eta inola ere ez beste inoren ordezkari gisa edo beste inoren kontura.

6.4. Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen ordezkari bat epaimahai kalifikatzaileko kide izango da, baina soilik eskatzen diren hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko probak egin eta ebaluatzeko.

6.5. Hala komeni dela baderitzo, aholkulari espezialisten laguntza edukiko du Epaimahaiak. Aholkulari horiek, organo kalifikatzaileari laguntzean, beren espezialitate teknikoetara mugatuko dira.

6.6. Epaimahaikideek ez dute egiteko horretan jardungo, baldin eta urriaren 1eko 40/2015 Legeak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak, 23. artikuluan aipatutako egoeraren batean badaude, eta horren berri eman beharko diote Administrazio Batzordeko presidenteari.

Era berean, aurreko paragrafoan adierazitako egoeraren bat gertatzen bada, izangaiak epaimahaikideak errefusatu ahal izango dituzte, edozein unetan, aipatutako lege testuaren 24. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.

6.7. Epaimahaia oinarri hauetara lotuta geratzen da, hautaketa-prozesuaren faseen balorazioari dagokionez.

6.8. Epaimahaia, bere jardunean, urriaren 1eko 40/2015 Legeak, sektore publikoaren araubide juridikoarenak, 15. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako arauetara lotuko da. Edonola ere, hautaprobak hasi aurretik bilduko da, lehendakariaren aginduz idazkariak bilera deia eginda, eta, behar bezala eratzeko, lehendakaria eta idazkaria, edo horien ordezkoak, eta kideen erdiak bildu behar dira, gutxienez.

Erabakiak bertaratu direnen botoen gehiengoz hartuko dira. Berdinketak lehendakariaren kalitate botoaren bidez ebatziko dira.

Lehendakaririk eta bere ordezkorik ez badago, kanpoan edo gaixorik badago, edo legezko beste arrazoiren bat badago, maila, antzintasun eta adin handiena duen epaimahaikideak ordeztuko du, betiere ordena horretan.

Idazkaririk eta bere ordezkorik ez badago, kanpoan edo gaixorik badago, edo legezko beste arrazoiren bat badago, epaimahaiak gehiengoz erabakitzen duen kideak ordeztuko du.

6.9. Epaimahaiak autonomia funtzional osoz jardungo du, prozeduraren legezotasuna zainduko du, eta haren objektibotasuna bermatuko du.

Epaimahaiak dagozkion neurriak hartuko ditu oposizio aldiko ariketa idatzien edukiaren konfidentzialtasuna bermatzeko eta izangaien nortasuna jakin gabe zuzentzeko.

Zuzenketa mekanizatua ez duten ariketetan, Epaimahaiak baztertu egingo ditu izangaiak, baldin eta ariketa idatzietan beren nortasuna jakiteko aukera ematen duen marka edo zeinurik badago.

Epaimahai Kalifikatzaileak gaitasuna edukiko du edozein probaren garapen normala eragozten duen edo berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioen arabera kompetentzia desleiala eragiten duen edozein izangai baztertzeko. Epaimahaiko presidenteak berehala emango

dio halako jardueren berri Administrazio Batzordeko presidenteari, eta ekitaldiaren aktan jasoko ditu gorabehera horiek.

Era berean, hautaprobetan ez da onartuko berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak urra ditzakeen gailu edo baliabide teknologikorik.

Izangaien batek arau horiek urratuz gero, berehala baztertuko da probatik zein hautaketa-prozesutik, eta, hortaz, baita osa litekeen lan-poltsatik ere.

6.10. Hautaketa-prozesuaren edozein unetan Epaimahaiak jakiten badu izangaien batek ez dituela deialdiaren eskakizunak betetzen, izangaia baztertzeko proposatzeko dio Administrazio Batzordeko presidenteari, izangaiak egindako okerren nahiz faltsutasunen berri emanik, betiere alde aurretik interesdunari entzun ondoren.

6.11. Epaimahaiak oinarri hauen aplikazioan sortzen diren zalantzak ebartzeko ditu, eta behar diren erabakiak hartuko ditu deialdia era egokian gauzatzeko, oinarrietan aurreikusi gabeko kasuetan hartu beharreko irizpideak ezarrita.

6.12. Epaimahai Kalifikatzaileari egin beharreko erreklamazioak edo beste edozein komunikazio tribunaldesubinspector@araba.eus helbide elektronikora bidaliko dira.

7. DEIALDIAK, JAKINARAZPENAK ETA INFORMAZIOA.

7.1. Hautaprobak ez dira hasiko deialdiaren oinarriak ALHAOn argitaratu eta bi hilabete baino lehen.

7.2. Oposizio aldiko lehen ariketaren eguna, lekua eta ordua onartu eta baztertuen behin-behineko zerrendak onartzen dituen ebazpenean adieraziko dira, zeina ALHAOn eta Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren www.arkauteakademia.eus web orrian argitaratuko baita.

Hautaketa-prozesuaren ondoriozko gainerako komunikazio eta jakinarazpen guztiak Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren www.arkauteakademia.eus web orrian argitaratuko dira.

Argitalpen guztietan adieraziko da horren data, eta hurrengo egunetik kontatuko dira dagozkion erreklamazioak eta errekurtsioak ezartzeko epeak.

8. HAUTAKETA-PROZESUA.

Hautaketa-prozesua oposizio-lehiaketako sistemaren bidez egingo da, eta prestakuntza eta praktika aldi bat ere egongo da, nahitaezkoa eta baztertzaila, hautaketa-prozesuaren beste fase baten gisa.

9. OPOSIZIO FASEA.

Oposizio fasean ondorengo ariketa hauek egin beharko dira:

9.1. Lehenengo ariketa: bi proba izango dira, nahitaezkoak eta baztertzailak biak ere. Larrialdiak Kudeatzeko Legearen testu bategina onartzen duen apirilaren 27ko 1/2017 Legegintzako Dekretuaren 55. artikulua araber, barne sustapen bidez lehiatzen diren izangaiak ariketa hauek egitetik salbuetsita geratuko dira.

Barne sustapen bidez Erakunde Autonomoaren eskala operatibokoak ez diren kategorietatik lehiatzen diren izangaiak nahitaez egin beharko dute deialdiko lehen ariketako bigarren proba, baztertzaila izango dena, eta gai edo ez gai kalifikazioa lortuko dute. Hala, gai izango dira oposizio libreko sisteman gainditu beharreko zuzeneko gutxieneko puntuazioa lortzen duten izangaiak.

9.1.1. Proba orokorra. Test moduko ariketa bat izango da. Galdera bakoitzean lau erantzun proposatzeko dira, eta bakarra izango da erantzun zuzena. Galderak oinarri hauetako II. Eranskinen A ataleko gai orokorrei buruzkoak izango dira. Erantzun oker bakoitzeko, galdera bakoitzari esleitutako puntuazioaren herena kenduko da. Erantzun gabeko galderak ez dira galdera okertzat joko.

Ariketari 0-10 puntu emango zaizkio. Ariketa gainditzeko, 5 puntu lortu beharko dira gutxienez.

Hautaketa-prozesua taxuz egiteko, Epaimahaiak gaitasuna edukiko du proba gainditzeko behar den amaierako gutxieneko puntuazioa (5 puntu) lortzeko behar den gutxieneko zuzeneko puntuazioa zehazteko, izangaien nortasuna jakin baino lehen.

Izangaien zuzeneko puntuazioa lortzeko, honako formula hau aplikatuko da: ondo erantzundako galdera-kopuruari gaizki erantzundako galderen herena kenduko zaio ($P = O - G/3$).

Epaimahaiak amaierako gutxieneko puntuazioa (5 puntu) lortzeko behar den zuzeneko puntuazioa zehaztu ondoren, izangaiek lortutako zuzeneko puntuazioak amaierako puntuazio bihurtuko dira, banaketa proportzionalaren arabera; hala, amaierako 10 puntuko puntuazioa izango da gehienez lortu ahalko den zuzeneko puntuazioa.

Amaieran 5 puntu lortzen ez dituzten izangaiaik baztertuta geratuko dira.

9.1.2. Suteen prebentzio eta itzaltzeari buruzko proba orokorra: test moduko azterketa bat izango da. Galdera bakoitzean lau erantzun proposatuko dira, eta bakarra izango da erantzun zuzena. Galderak oinarri hauetako suteen prebentzio eta itzaltzeari buruzko II. Eranskinen B ataleko gai orokorrei buruzkoak izango dira. Erantzun oker bakoitzeko, galdera bakoitzari esleitutako puntuazioaren herena kenduko da. Erantzun gabeko galderak ez dira galdera okertzat joko.

Ariketari 0-16 puntu emango zaizkio. Ariketa gainditzeko, 8 puntu lortu beharko dira gutxienez.

Hautaketa-prozesua taxuz egiteko, Epaimahaiak gaitasuna edukiko du proba gainditzeko behar den amaierako gutxieneko puntuazioa (8 puntu) lortzeko behar den gutxieneko zuzeneko puntuazioa zehazteko, izangaien nortasuna jakin baino lehen.

Izangaien zuzeneko puntuazioa lortzeko, honako formula hau aplikatuko da: ondo erantzundako galdera-kopuruari gaizki erantzundako galderen herena kenduko zaio ($P = O - G/3$).

Epaimahaiak amaierako gutxieneko puntuazioa (8 puntu) lortzeko behar den zuzeneko puntuazioa zehaztu ondoren, izangaiek lortutako zuzeneko puntuazioak amaierako puntuazio bihurtuko dira, banaketa proportzionalaren arabera; hala, amaierako 16 puntuko puntuazioa izango da gehienez lortu ahalko den zuzeneko puntuazioa.

Amaieran 8 puntu lortzen ez dituzten izangaiaik baztertuta geratuko dira.

9.1.3. Lehen ariketako bi probak egun berean izan ahalko dira, Epaimahai Kalifikatzaileak hala erabakiz gero, proba horietako bakoitzaren izaera baztertzailearen kaltetan gabe. Beraz, bi proba horietakoren bat ez gainditzeak izangaia hautaketa-prozesutik kanpo geratzea ekarriko du.

9.2. Bigarren ariketa: test moduko ariketa bat izango da, nahitaezkoak eta baztertzailea. Galdera bakoitzean lau erantzun proposatuko dira, eta bakarra izango da erantzun zuzena. Galderak oinarri hauetako III. Eranskinen gai espezifikoak buruzkoak izango dira. Erantzun oker bakoitzeko, galdera bakoitzari esleitutako puntuazioaren herena kenduko da. Erantzun gabeko galderak ez dira galdera okertzat joko.

9.2.1. Oposizio librea.

Ariketari 0-34 puntu emango zaizkio. Ariketa gainditzeko, 17 puntu lortu beharko dira gutxienez.

Hautaketa-prozesua taxuz egiteko, Epaimahaiak gaitasuna edukiko du proba gainditzeko behar den amaierako gutxieneko puntuazioa (17 puntu) lortzeko behar den gutxieneko zuzeneko puntuazioa zehazteko, izangaien nortasuna jakin baino lehen.

Izangaien zuzeneko puntuazioa lortzeko, honako formula hau aplikatuko da: ondo erantzundako galdera-kopuruari gaizki erantzundako galderen herena kenduko zaio ($P = O - G/3$).

Epaimahaiak amaierako gutxieneko puntuazioa (17 puntu) lortzeko behar den zuzeneko puntuazioa zehaztu ondoren, izangaiek lortutako zuzeneko puntuazioak amaierako puntuazio

bihurtuko dira, banaketa proportzionalaren arabera; hala, amaierako 34 puntuko puntuazioa izango da gehienez lortu ahalko den zuzeneko puntuazioa.

Amaieran 17 puntu lortzen ez dituzten izangaiak baztertuta geratuko dira.

9.2.2. Barne sustapena.

Ariketari 0-46 puntu emango zaizkio. Ariketa gainditzeko, 23 puntu lortu beharko dira gutxienez.

Hautaketa-prozesua taxuz egiteko, Epaimahaiak gaitasuna edukiko du proba gainditzeko behar den amaierako gutxieneko puntuazioa (23 puntu) lortzeko behar den gutxieneko zuzeneko puntuazioa zehazteko, izangaien nortasuna jakin baino lehen. Gutxieneko zuzeneko puntuazio sarbide librean eskatutakoa bestekoa izango da, nolahi ere.

Epaimahaiak amaierako gutxieneko puntuazioa (23 puntu) lortzeko behar den zuzeneko puntuazioa zehaztu ondoren, izangaiek lortutako zuzeneko puntuazioak amaierako puntuazio bihurtuko dira, banaketa proportzionalaren arabera; hala, amaierako 46 puntuko puntuazioa izango da gehienez lortu ahalko den zuzeneko puntuazioa.

Amaieran 23 puntu lortzen ez dituzten izangaiak baztertuta geratuko dira.

9.3. Hirugarren ariketa: nahitaezkoak eta baztertzailerak izango da, eta lau (4) orduko epearen barruan, oinarri hauetako gai orokorrekin eta espezifikoeekin (II. B Eranskina eta III. Eranskina) zerikusia duten eta Epaimahaiak hasi baino lehenetsuago proposatutako kasu praktikoen artean, bat edo batzuk idatziz ebaztean datza.

Ondorengo hauek dira, besteak beste, lanpostuaren eginkizunak:

- Istripuetan esku hartzeko talde operatiboak zuzendu.
- Agintzeko eginkizunak esleitutako langileengan bete.
- Prebentzio jarduerak gauzatu.
- Maniobrak koordinatu.
- Jarduera-prozedura, sistema eta metodoak berri eta hobetzeko azterketa eta proiektuak proposatu eta horiek diseinatzeko, ezartzen eta ebaluatzen lagundu.
- Esku hartzeko, zuzentzeko eta konpontzeko beharrezkoak hauteman.
- Zerbitzuaren eskumeneko arlo tekniko eta operatiboak ikertu eta horiei buruzko informazioa eman.
- Hierarkikoki ezarritako neurriak abiarazteko ardura duten agenteekin koordinatu.
- Instalazioak, ekipamenduak eta materiala aldi-aldi mantentzeko ardura hartu.
- Lan egiteko erabilitako materiala kudeatu eta kontrolatu.
- Lan arriskuen prebentzioaren arloan arauak eta gidalerroak betetzeko ardura hartu.

9.3.1 Oposizio librea.

Ariketari 0-40 puntu emango zaizkio. Ariketa gainditzeko, 20 puntu lortu beharko dira gutxienez.

Hautaketa-prozesua taxuz egiteko, Epaimahaiak gaitasuna edukiko du proba gainditzeko behar den amaierako gutxieneko puntuazioa (20 puntu) lortzeko behar den gutxieneko zuzeneko puntuazioa zehazteko, izangaien nortasuna jakin baino lehen.

Izangaien zuzeneko puntuazioa lortzeko, honako formula hau aplikatuko da: ondo erantzundako galdera-kopuruari gaizki erantzundako galderen herena kenduko zaio ($P = O - G/3$).

Epaimahaiak amaierako gutxieneko puntuazioa (20 puntu) lortzeko behar den zuzeneko puntuazioa zehaztu ondoren, izangaiek lortutako zuzeneko puntuazioak amaierako puntuazio bihurtuko dira, banaketa proportzionalaren arabera; hala, amaierako 40 puntuko puntuazioa izango da gehienez lortu ahalko den zuzeneko puntuazioa.

Amaieran 20 puntu lortzen ez dituzten izangaiek baztertuta geratuko dira.

9.3.2 Barne sustapena.

Oposizio librerako ezarritako probaren berdin-berdina izango da edukia. Ariketari 0-54 puntu emango zaizkio. Ariketa gainditzeko, 27 puntu lortu beharko dira gutxienez.

Hautaketa-prozesua taxuz egiteko, Epaimahaiak gaitasuna edukiko du proba gainditzeko behar den amaierako gutxieneko puntuazioa (27 puntu) lortzeko behar den gutxieneko zuzeneko puntuazioa zehazteko, izangaien nortasuna jakin baino lehen.

Izangaien zuzeneko puntuazioa lortzeko, honako formula hau aplikatuko da: ondo erantzundako galdera-kopuruari gaizki erantzundako galderen herena kenduko zaio ($P = O - G/3$).

Epaimahaiak amaierako gutxieneko puntuazioa (27 puntu) lortzeko behar den zuzeneko puntuazioa zehaztu ondoren, izangaiek lortutako zuzeneko puntuazioak amaierako puntuazio bihurtuko dira, banaketa proportzionalaren arabera; hala, amaierako 54 puntuko puntuazioa izango da gehienez lortu ahalko den zuzeneko puntuazioa.

Amaieran 27 puntu lortzen ez dituzten izangaiek baztertuta geratuko dira.

9.4. Laugarren ariketa: Nahitaezkoa eta baztertzalea izango da, eta oinarri hauen IV. Eranskinean zehaztutako probak egin beharko dira, gaitasun fisikoa egiaztatzeko.

Gaitasun fisikoa egiaztatzeko probetara aurkezte hutsagatik, izangaiek euren gain hartuko dute euren integritate fisikoaren gaineko erantzukizuna, euren erabaki pertsonalei dagokienez, eta Erakunde Autonomoa eta Epaimahai Kalifikatzailea salbuetsita geratuko dira proba horietan eduki lezaketan edozein lesioren erantzukizunetik.

Epaimahai Kalifikatzaileak estimulatzaileen kontsumoa edo beste edozein dopaje mota atzemateko probak egin ahalko dizkie ausaz izangaiei, 2016ko abenduaren 30eko Ebazpenean (BOE, 6. zk., 2017ko urtarrilaren 7koa) jasotako Goi Mailako Kirol Batzordearen arauen arabera, eta emaitza positiboa ematen duten izangaiek hautaketa-prozesutik kanpo geratuko dira.

Laugarren ariketaren kalifikazioa "Gai" edo "Ez gai" izango da, oposizio libreko zein barne sustapeneko sisteman. Ariketa osatzen duten proba fisiko guztietan eta bakoitzean "Gai" kalifikazioa lortzen ez duten izangaiek hautaketa-prozesutik kanpo geratuko dira.

9.5. Epaimahaiak proba eta ariketetarako eguna, ordua eta lekua adieraziz egindako deia kasu egiten ez dioten izangaiek automatikoki geratuko dira hautaketa-prozesutik kanpo, baita pisuzko arrazoietatik aurkezten ez direnak ere.

Arau hori bera aplikatuko zaie edozein ariketa hasi ondoren sartzen diren izangaiei. Nahitaezko probek ariketa bat baino gehiago badute, horietako edozeinetara ez agertzea edo berandu agertzea nahikoa izango da ez dela agertu jotzeko.

9.6. Izangairen batek ezin baditu deialdiaren laugarren ariketan aurreikusitako gaitasun fisikoko probak egin, haurdunaldiaren arriskua edo haurraz erditu izana behar bezala egiaztatu izanagatik, izangai horren egoera hautaketa-prozesuaren amaierara eta probak gainditzera baldintzatuta geratuko da, baina probak ezingo dira atzeratu gainerako izangaiek arrazoizko denbora batera egokitutako hautaketa-prozesuaren ebazpenerako dituzten eskubideak gutxiesten badira, Epaimahai Kalifikatzaileak baloratu beharko duelarik hori. Nolanahi ere, hautaketa prozesua gainditu dutenen behin-behineko zerrenda argitaratu baino lehen egin beharko dira proba horiek.

Horretarako, zerrenda hori argitaratu baino lehen, dei espezifikoak egingo zaie probak egiteko egoera horretan dauden izangaiei, probak egiteko, eta horretarako aurreikusitako egunean ezin badituzte egin, kausa zeinahi dela ere, probetarako eskubide guztiak galduko dituzte.

Epaimahai Kalifikatzaileak beharrezko neurriak hartu ahalko ditu idatzizko probak egin ahal izateko, haurdunaldi arriskutsu edo haurraz erditze kasuan, horiek behar bezala egiaztatuta, baldin eta proba horiek ezin badira egin deialdi orokorrerako aurreikusitako egun, leku eta orduan. Kasu horretan, deialdi orokorrean egindakoen desberdinak izan ahalko dira probak.

9.7. Izangaiek NAN, pasaporteak, gidabaimena edo, atzerritarrak badira, horien pareko agiri-riren bat eraman beharko dute probetara, eta bere nortasuna arestian adierazitako moduan egiaztatzeko modurik ez duen izangaia probetatik kanpo geratuko da.

9.8. Ariketa baten behin betiko emaitzak argitaratzen direnetik hurrengo ariketara, 72 orduko tartea egongo da gutxienez, eta 45 egun naturalekoa, gehienez.

9.9. Aldi berean egin ezin daitezkeen ariketen jarduera-ordena Estatuko Administrazio Orokorraren diharduten langileen sarbiderako, lanpostuen hornikuntzarako eta administrazio bereko funtzionario zibilen lanbide sustapenerako arautegi orokorra onartzen duen martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretuaren 17. artikulua aipatutako zozketaren arabera ezarriko da.

Zozketa horretan ateratako letratik hasten den lehen abizena duen izangairik ez badago, hurrengo araberakoa izango da jarduera-ordena.

9.10. Ariketa bakoitzaren behin-behineko emaitzak argitaratu ondoren, izangaiek 5 egun baliodun izango dituzte izangaiek Epaimahai Kalifikatzaileari egoki jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko.

Erreklamazioak egiteko epea amaitu eta, halakorik badago, aurkeztu direnak ebatzi ostean, Epaimahaiak ariketa bakoitzaren behin betiko emaitzak argitaratzeko agindua emango du.

9.11. Oposizio aldiko nahitaezko azken ariketa baztertzailaren behin betiko emaitzak argitaratu ondoren, Lehiaketa Faseko merezimenduak egiaztatzeko epea ezarriko du Epaimahai Kalifikatzaileak, 11. oinarrian ezarri bezala.

10. EUSKARA.

10.1. Euskara jakitea merezimendu gisa balioetsiko da lehiaketa fasean, egiaztatutako hizkuntza eskakizunaren arabera.

Urriaren 16ko 222/2012 Dekretuan xedatutakoarekin bat etorritik, Erakunde Autonomoak argibideak eskatu ahal izango ditu hautaketa-prozesu honetan parte hartzen duten izangaiek euskararen jakite-maila egiaztatzeko lortutako egiaztagiriei buruz. Hautaketa-prozesu honetan parte hartzeak berekin dakar Erakunde Autonomoari baimena ematea datu horiek Euskara Tituluaren eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan (ETZEB) kontsultatzeko, baita aurkeztutako tituluak zein mailarekin parekatuta dauden ere.

10.2. Hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskaera-orrian merezimendu gisa baloratu beharreko hizkuntza eskakizunak (I., II. eta III. hizkuntza eskakizunak) egiaztatzeko probak egiteko nahia adierazi duten izangaiek eskaeran adierazitako hizkuntza eskakizunei dagozkien probak egin ahalko dituzte. Proba horiek borondatezkoak izango dira.

Epaimahai Kalifikatzaileak erabakiko du hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko probak noiz egin, eta oposizio fasean egin ahalko dira.

Proba horiek egin aurretik eta izangaiek euren eskaeran emandako informazioaren arabera, izangaiek alegatutako tituluak zein hizkuntza eskakizunen parekoak diren jakinaraziko du Epaimahai Kalifikatzaileak. Izangaiek titulazio batean oinarrituta alegatutako hizkuntza eskakizuna Epaimahai Kalifikatzailearen arabera, edozein arrazoi dela-eta, ez bada eskatutakoaren parekoa edo homologagarria, alegatutako hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko probak egin ahalko dituzte, nahiz eta eskaeran aukera hori adierazi ez izan.

Hizkuntza eskakizunak agiri hauen bidez egiaztatu ahal izango dira (azaroaren 9ko 297/2010 Dekretua, 2010eko azaroaren 15eko EHAA, 219. zenbakia):

a. III. hizkuntza eskakizunerako:

- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen ziurtagiria, 3. hizkuntza eskakizuna edo hortik gorakoa egiaztatu izanarena.
- Osakidetzaren ziurtagiria, 3. hizkuntza eskakizuna edo hortik gorakoa egiaztatu izanarena.
- 3. mailako edo hortik gorako ziurtagiria, HABErena.
- Euskararen Gaitasun Agiria (EGA).
- Ertzaintzako 2. HE.
- Irakaskuntzako 2. HE.
- Hizkuntza eskola ofizialetako euskarako 5. maila (ikasketa plan zaharrean).
- Hizkuntza eskola ofizialetako C1 maila.
- Euskaltzaindiaren D ziurtagiria.

b) II. hizkuntza eskakizunerako:

- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen ziurtagiria, 2. hizkuntza eskakizuna edo hortik gorakoa egiaztatu izanarena.
- Osakidetzaren ziurtagiria, 2. hizkuntza eskakizuna edo hortik gorakoa egiaztatu izanarena.
- 2. mailako edo hortik gorako ziurtagiria, HABErena.
- Ertzaintzako 1. HE.
- Irakaskuntzako 1. HE.
- Hezkuntzako Langileen Euskara Agiria (HLEA), Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarena.
- Hizkuntza eskola ofizialetako euskarako 4. maila (ikasketa plan zaharrean).
- Hizkuntza eskola ofizialetako maila aurreratua.

c) I. hizkuntza eskakizunerako:

- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen ziurtagiria, 1. hizkuntza eskakizuna edo hortik gorakoa egiaztatu izanarena.
- Osakidetzaren ziurtagiria, 1. hizkuntza eskakizuna edo hortik gorakoa egiaztatu izanarena.
- 1. mailako edo hortik gorako ziurtagiria, HABErena.
- Hizkuntza eskola ofizialetako euskarako 3. maila (ikasketa plan zaharrean).
- Hizkuntza eskola ofizialetako maila ertaina.

Aplikatzekoa izango da, orobat, apirilaren 3ko 47/2012 Dekretua, euskaraz egindako ikasketak ofizialak aintzat hartzearena eta hizkuntza tituluen eta ziurtagirien bidez euskara maila egiaztatzenetik salbuestearena.

Hizkuntza eskakizunak egiaztatzeneko proben behin-behineko emaitzak argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, izangaiek 5 egun baldiodun izango dituzte euskara ariketaren gainean egoki jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko.

Erreklamazioak egiteko epea amaitu eta, halakorik badago, aurkeztu direnak ebatzi ostean, Epaimahaiak proben behin betiko emaitzak argitaratzeko agindua emango du.

10.3. Euskara maila merezimendu gisa balioetsiko da, gehienez ere 15 punturekin.

Puntuak egiaztatutako euskara mailaren arabera banatuko dira, ondorengo modu honetan:

- I. hizkuntza eskakizunaren egiaztatzea: 5 puntu.
- II. hizkuntza eskakizunaren egiaztatzea: 10 puntu.
- III. hizkuntza eskakizunaren egiaztatzea: 15 puntu.

10.4. Epaimahai Kalifikatzaileak Arkautiko Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren www.arkauteakademia.eus web orrian argitaratuko ditu hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko proben emaitzak.

11. LEHIAKETA FASEA:

11.1. Lehiaketa fasea oposizio fasea gainditu duten izangaiek hautaketa prozesuan parte hartzeko eskaeran alegatu eta egiaztatu dituzten merezimenduak aztertu eta balioztatzeko izango da. Balorazioa egiteko, merezimendu bakoitzari dagozkion puntuak esleituko zaizkio, deialdian zehaztutako baremoaren arabera. Lehiaketa fasea ez da baztertzaileria izango, eta bertan eskuratutako puntuak ez dira aintzat hartuko oposizio faseko probak gainditzeko.

Hala, oposizio faseko azken ariketaren behin betiko emaitzen argitalpenean, hamar egun balioduneko epea ezarriko da hautaketa prozesuan parte hartzeko eskaeran alegatu eta egiaztatutako merezimenduak egiaztatzeko.

Merezimenduak egiaztatzeko agiriak jatorrizkoak edo fotokopia konpultsatuak izango dira, eta fotokopia konpultsatuek, baliozkoak izateko, informazio hau eduki beharko dute: data, eta konpultsaren arduradunaren izen-abizenak, NANA eta sinadura irakurgarria.

Inolako kasutan ere ezingo dira balioztatu hautaketa prozesuan parte hartzeko eskaeran behar bezala alegatu ez diren eta ezarritako epean egiaztatu ez diren merezimenduak. Nolanahi ere, Epaimahai Kalifikatzaileak egoki deritzone dokumentazio gehigarria aurkezteko eskatu ahal izango die izangaiei, alegatutako eta egiaztatutako eskarmentua merezimenduen baremoaren eskakizunekin bat datorren zehazteko.

Erakunde Autonomoan egindako zerbitzuak hautaketa prozesuan parte hartzeko eskaeran alegatu beharko dira, baina interesdunek ez dituzte egiaztatu beharko. Ofizios konputatuko dira.

Gainerako herri administrazioetan egindako zerbitzuen denbora abenduaren 26ko 70/1978 Legearen I. eranskinen eremuan egiaztatuko da. Edozein kasutan, desglosatu egingo dira, aldi bakoitzari dagozkion eskala, azpieskala, taldea eta maila zehaztuz.

11.2. Herri administrazioetako esperientzia profesionala 30 punturekin baloratuko da gehienez ere, kontzeptu guztiengatik, ondorengo baremo honen arabera:

a) Toki, foru edo erkidegoko administrazioan, administrazio horietako edo horien mendeko erakundeetan, sektore publikoaren araubide juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 2.3 artikulua arabera herri administrazio direnetan, karrerako funtzionario zein bitarteko edo lan-kontratudun gisa, inspektoreorde (edo pareko izeneko) talde, eskala, azpieskala, klase edo kategorian, Prebentzio, Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuetan egindako zerbitzuak, erakunde horiek halakotzat jo diren aldian.

Hilabete oso bakoitzeko 0,30 puntu eskuratuko dira, 30 puntu gehienez ere. Zerbitzuak alegatutako aldietako egunak batuta konputatuko dira, eta batura egin ondoren, hilabetetik beherako frakzioak alde batera utziko dira. Horretarako, 30 egun naturalen batura hartuko da hilabete gisa.

Euskal Autonomia Erkidegoko foru eta toki administrazioan egindako zerbitzuak baliozkoak joko dira, uztailaren 30eko 208/1990 Dekretuak, euskal administrazio publikoetako kidego eta eskalen arteko baliokidetza finkatzen duenak, ezarritako moduan, eta otsailaren 25eko 1/2004 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako kidegoak eta eskalak antolatzeak, xedatutakoaren kalterik gabe.

b) Toki, foru edo erkidegoko administrazioan, administrazio horietako edo horien mendeko erakundeetan, sektore publikoaren araubide juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 2.3 artikulua arabera herri administrazio direnetan, karrerako funtzionario zein bitarteko edo lan-kontratudun gisa, ofizialorde eta sarjentu talde, eskala, azpieskala, klase edo kategorian, Prebentzio, Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuetan egindako zerbitzuak, erakunde horiek halakotzat jo diren aldian.

Hilabete oso bakoitzeko 0,20 puntu eskuratuko dira, 20 puntu gehienez ere. Zerbitzuak alegatutako aldietako egunak batuta konputatuko dira, eta batura egin ondoren, hilabetetik beherako frakzioak alde batera utziko dira. Horretarako, 30 egun naturalen batura hartuko da hilabete gisa.

Euskal Autonomia Erkidegoko foru eta toki administrazioan egindako zerbitzuak baliokide joko dira, uztailaren 30eko 208/1990 Dekretuak, euskal administrazio publikoetako kidego eta eskalen arteko baliokidetza finkatzen duenak, ezarritako moduan, eta otsailaren 25eko 1/2004 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako kidegoak eta eskalak antolatzeak, xedatutakoaren kalterik gabe.

c) Toki, foru edo erkidegoko administrazioan, administrazio horietako edo horien mendeko erakundeetan, sektore publikoaren araubide juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 2.3 artikulua arabera herri administrazio direnetan, karrerako funtzionario zein bitarteko edo lan-kontratudun gisa, suhiltzaile edo kabo (edo pareko izeneko) talde, eskala, azpieskala, klase edo kategorian, Prebentzio, Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuetan egindako zerbitzuak, erakunde horiek halakotzat jo diren aldian.

Hilabete oso bakoitzeko 0,10 puntu eskuratuko dira, 10 puntu gehienez ere. Zerbitzuak alegatutako aldietako egunak batuta konputatuko dira, eta batura egin ondoren, hilabetetik beherako frakzioak alde batera utziko dira. Horretarako, 30 egun naturalen batura hartuko da hilabete gisa.

Euskal Autonomia Erkidegoko foru eta toki administrazioan egindako zerbitzuak baliokide joko dira, uztailaren 30eko 208/1990 Dekretuak, euskal administrazio publikoetako kidego eta eskalen arteko baliokidetza finkatzen duenak, ezarritako moduan, eta otsailaren 25eko 1/2004 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako kidegoak eta eskalak antolatzeak, xedatutakoaren kalterik gabe.

11.3. Alde batera utzita euskararen ezagutzen gainean 10. oinarrian ezarritakoa, gainerako merezimenduak soilik konputatuko dira eskaerak egiteko epeko azken egunari erreparatuta.

12. LANGILEAK HAUTATZEA.

12.1. Behin alegatutako merezimenduen balioespena eginda, Epaimahai Kalifikatzaileak Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren www.arkauteakademia.eus web orrian argitaratuko du oposizio libre zein barne sustapen bidez probak gaingitu dituzten izangaien behin-behineko zerrenda, oposizio eta lehiaketa faseetan eta euskararen eskuratutako puntuen arabera ordenatuta.

Berdinketarik egonez gero, Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua eta Gizon eta Emakumeen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20.4 a) artikuluaekin bat etorriz, emakumeei emango zaie lehentasuna, inspektoreorde kategorian Erakunde Autonomoaren plantillaren ehuneko 40ko ordezkariak eduki arte; horretarako, eskainitako lanpostu hutsak zein karrerako funtzionarioek betetzen dituztenak hartuko dira aintzat.

Aurreko paragrafoan ezarritakoaren kalterik gabe, berdinketa hausteko lehentasun ordena hurrenez hurren irizpide hauei jarraituz ezarriko da:

- 1) Oposizio fasean puntuaziorik handiena lortu duenaren alde.
- 2) Oposizio faseko bigarren ariketan puntuaziorik handiena lortu duenaren alde.
- 3) Oposizio faseko lehen ariketako bigarren proban puntuaziorik handiena lortu duenaren alde, oposizio libreko izangaiatzat.

4) Administrazio publikoetan lan egindako denbora luzeena egiaztatu duenaren alde, baldin eta denbora hori lehiaketa aldian balioztatu beharreko merezimendua bada.

Hala eta guztiz ere berdinketarik badago, oraindik, Epaimahai Kalifikatzaileak berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioen arabera irizpideak erabiliko ditu berdinketa hausteko.

12.2. Arestian aipatutako zerrenda argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesdunek 5 egun baliodun edukiko dituzte Epaimahai Kalifikatzaileari lehiaketa faseko eta euskarako puntuazioei eta berdinketa hausteko irizpideei dagokienez egoki jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko, baldin eta, euskarari dagokionez, ez bada izapide hori egin jada egin, 10.2 oinarrian ezarritakoaren arabera.

Erreklamazioak egiteko epea amaitu eta haiek ebatzi ostean, gainditu duten izangaien behin betiko zerrenda eskuratutako puntuazioaren arabera hurrenkeran, eta Administrazio Batzordeko presidenteari helaraziko dio.

Lehiaketa faseko eta euskarako puntuazioaren inguruan aurkeztutako erreklamazioak aztertzearen ondorioz berdinketarik gertatzen bada, eta lehen aipatutako irizpideak aplikatu behar badira berdinketa hori hausteko, eragindako pertsonen erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute 5 egun balioduneko epean, berdinketa hausteko irizpideen aurka.

12.3. Epe hori igaro eta erreklamazioak ebatzi ostean, Administrazio Batzordeko presidentek oposizio libre edo barne sustapen bidez prestakuntza eta praktika aldirako hautatutako izangaien behin-behineko zerrenda argitaratuko du.

12.4. Hautatutako izangaien behin-behineko zerrenda horretako pertsonen 5 egun balioduneko epea edukiko dute hautaketa-prozesuan parte hartzeko exijitutako ondorengo ziurtagiri hauek aurkezteko:

a) NANaren fotokopia konpultsatua.

b) Deialdian parte hartzeko exijitutako tituluen eta gidabaimenen fotokopia konpultsatua.

c) Zinpeko aitortpena edo hitz ematea, adieraziz ezen ez dagoela ezgaitua eginkizun publikoetan jarduteko, ez dela baztertua izan edozein administrazio publikoren zerbitzuetatik diziplina espediente baten bidez, eta ez dagoela sartuta abenduaren 26ko 53/1984 Legeak, administrazio publikoen zerbitzura dauden langileen bateraezintasunenak, jasotzen dituen eta ezgaitasuna edo bateraezintasuna dakarten egoeretakoa batean.

Izangai atzerritarrek Administrazioaren jakinarazpen bat jasoko dute, non zehaztuko baita, duten egoeraren arabera, zer agiri aurkeztu behar duten nahitaez.

Egiaztagiriak jatorrizkoak edo fotokopia konpultsatuak izango dira, eta fotokopia konpultsatuek, baliozkoak izateko, informazio hau eduki beharko dute: data, konpultsaren arduradunaren izen-abizenak, NANA eta sinadura irakurgarria.

Agiri horiek aurkeztu ezina behar bezala justifikatuz gero, izangaiak zuzenbidean onartzen den edozein frogabideren bitartez egiaztatu ahal izango du betetzen dituela eskatzen diren baldintzak.

Adierazitako epearen barruan, ezinbesteko kasuetan salbu, agiriak aurkezten ez dituztenak, edo haiek aztertzean agertzen bada ez dutela betetzen 3. oinarrian adierazitako betekizunen bat, hautaketa-prozesutik eta lan-poltsatik kanpo geratuko dira, eskabidean datu faltsuak emateagatik legokiekkeen erantzukizunaren kalterik gabe.

12.5. Aldi berean eta web orri berean, behin-behinean hautatutako izangaiak lanpostuko funtzioetarako egiaztatu beharreko gaitasun funtzionala egiaztatzeko egin beharreko proba fisiko-psikikoetarako eguna, lekua eta ordua adieraziko dira

Probak Osasun Zerbitzuak egingo ditu, eta gaitasun funtzionala egiaztatzeko behar beste proba kliniko edo analitiko osagarri egin ahalko dira.

Probak egin aurretik, egin beharreko proben berri emango zaie izangaiei, eta dagokion baimena sinatu beharko dute; datuak eta proben emaitzak isilpean gordetzea bermatuko da.

Probetarako baimena ez emateak hautaketa-prozesutik kanpo geratzea ekarriko du.

Lanpostuko funtzioetarako "Ez gai" diren izangaia hautaketa-prozesutik kanpo geratuko dira.

12.6. Adierazitako dokumentazioa aurkezteko epea amaitu eta gaitasun fisiko-psikikoa egiaztatzeko probak egin ondoren, Administrazio Batzordeko presidentek barne sustapen bidez prestakuntza eta praktika aldi faserako hautatutako izangaiei behin betiko zerrenda argitaratzeko aginduko du.

Zerrenda horretan, barne sustapen bidezko deialdiko lanpostu hutsak beste izangai bakarrik egongo dira. Behin betiko hautatutako izangaiei nortasuna zehazteko, ondorengo irizpide hauek aplikatuko dira:

1. Onartutako izangaiei behin betiko zerrendako puntuazioa.
2. Hautaketa prozesuan parte hartzeko eskaeran adierazitako lanpostu hutsen inguruko lehenespena.
3. Hizkuntz eskakizunaren egiaztatzea, derrigorrezko hizkuntz eskakizuna duten lanpostuetara hautatu bada.

Lanpostu hutsen bat ez bada betetzen, oposizio libreko lanpostu hutsei erantsiko zaie.

Barne sustapen bidez prestakuntza eta praktika aldi faserako hautatutako izangaiei behin betiko zerrenda argitaratu ondoren, oposizio libre bidez prestakuntza eta praktika aldi faserako hautatutako izangaiei behin betiko zerrenda argitaratzeko aginduko du Administrazio Kontseiluko presidentek.

Zerrenda horretan, oposizio libreko lanpostu hutsak beste hautagai egongo dira, eta, hala badagokio, barne sustapen bidez bete gabeko lanpostuak ere bai. Oposizio libre bidez hautatutako behin betiko izangaiei nortasuna ezartzeko, barne sustapenerako aurreikusitako irizpide berberak aplikatuko dira.

Bi zerrendak Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren www.arkauteakademia.eus web orrian argitaratuko dira.

12.7. Lanpostu hutsen bat ez bada betetzen aurreko paragrafoan adierazitako moduan, behin behinean hautatutako izangaiei zerrenda gehigarri bat argitaratuko da, eta izangai horiek 12.4, 12.5, eta 12.6 oinarrietan aurreikusitako prozedura errepikatuko dute. Prozedura hori behar beste aldiz errepikatuko da, praktika eta prestakuntza aldirako lanpostu hutsak beste behin betiko izangai hautatu arte.

13. PRAKTIKA ETA PRESTAKUNTZA ALDIA.

13.1. Behin betiko hautatutako izangaiek sei hilabeteko praktika eta prestakuntza aldia egin beharko dute; nahitaezkoa eta baztertzaila izango da, aldi horretan inspektoreorde funtzioak betetzeko prestakuntza eta praktika lor ditzaten.

Horretarako, Administrazio Batzordeko presidentek praktiketako funtzionario izendatuko ditu izangai horiek.

13.2. Prestakuntza aldia.

Izangaiek gehienez ere 4 hilabeteko prestakuntza ikastaro bat gainditu beharko dute Arkautiko Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiari; ikastaro horren xedea izango da su itzaltze eta prebentzio zerbitzuekin lotutako gai orokorrak eta bereziak ikasi eta horietan trebatzea.

Prestakuntza aldira oposizio libre edo barne sustapen bidez sartu diren eta akademia horretan edo beste herri administrazioetako Sute Zerbitzuek eskainitako suhiltzaile ikastaro espezifiko bat gainditu duten izangaiak aurreko paragrafoan aipatutako ikastaroa egitetik erabat edo partzialki salbuetsita geratu ahalko dira.

Horretarako, egindako ikastaroak, ikastaroen edukia eta horiek gainditu izana egiaztatu beharko dira ezartzen den epean. Aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, izangaia ikastarotik erabat edo partzialki salbuetsita dagoen zehaztuko du Arkautiko Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak, eta partzialki salbuetsita badago, izangaiak prestakuntza osatzeko zer prestakuntza modulu egin behar dituen.

Prestakuntza aldia (berdin ikastaro osoa edo egiaztatu edo homologatu gabeko moduluak egin behar badira) baztertzaileria izango da, eta modulu guztien eta bakoitzaren ebaluazioa gainditu beharko dira ikastaroaren amaieran. Prestakuntza aldia "Gai" edo "Ez gai" baloratuko da.

Prestakuntza aldia ez gainditzeak praktiketako funtzionario izateari uztea ekarriko du, eta izangaiak karrerako funtzionario izendatzeko eskubide guztiak galduko ditu.

Prestakuntza aldian, praktiketako funtzionarioek inspektoreorde lanpostuari dagozkion oinarrizko ordainsariak jasoko dituzte.

13.3. Praktika aldia.

Prestakuntza ikastaroa egitetik salbuetsita dauden izangaiak foru parkeetara bidaliko dituzte, zerbitzuaren beharren arabera, inspektoreorde lanpostuetarako praktika aldia egiteko, eta lanpostu horri dagozkion ordainsariak jasoko dituzte.

Prestakuntza aldia osorik edo partzialki egin behar duten izangaiak foru parkeetako inspektoreorde lanpostuetara bidaliko dituzte ikastaroa amaitutakoan, zerbitzuaren beharren arabera, inspektoreorde lanposturako "Gai" kalifikazioa lortuz gero, 6 hilabeteko aldia osatu arte praktika aldia egiteko.

Praktika aldia gainditzeko, beharrezkoa izango da aldi horretako presentzia-orduen erdiak, gutxienez, betetzea lanpostuan.

Ebaluazio Batzorde batek ebaluatu eta kalifikatuko du praktika aldia, eta Kalifikazio Epaimahaiarentzat ezarritako funtzionamendu-arau berberak edukiko ditu. Ondorengo hauek osatuko dute Ebaluazio Batzordea:

Presidentea:

Erakunde Autonomoaren Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuko burua.

Bi kide:

- Erakunde Autonomoaren Giza Baliabide eta Administrazio Kudeaketa burua.
- Toki, Foru edo Erkidegoko Su Itzaltze eta Prebentzio Zerbitzuetako karrerako funtzionario bat.

Ondorengo irizpide hauek erabiliko dira balorazioa egiteko:

a) Izangaiak agertutako hurrengo hauetarako gaitasuna:

- Lanerako gaitasuna eta errendimendua.
- Erantzukizun-sena eta eraginkortasuna.
- Ikasteko gogoia, jarrera edo ekimena.

b) Izangaiak agertutako hurrengo hauetarako ahalmena:

- Lanera egokitze eta lan-taldean integratzeko.

- Kanpo eta/edo barne harremanak egokitzeko.
- Arrisku, stress, ezusteko, anabasa eta abarretara egokitzeko.

Kontzeptu horiek guztiak baztertzailak izango dira, eta “Gai” edo “Ez gai” kalifikatuko dira. Praktika aldia zehar eta hura amaitu baino lehen, Ebaluazio Batzordeak aldi horren gaineko behin-behineko ebaluazio bat egingo du, eta horren emaitza interesdunari jakinaraziko zaio, ezezkoa bada. Praktika aldia amaitutakoan, azken ebaluazioa egingo da.

Praktika aldia ez gainditzekotan, praktiketako funtzionario izateari utziko zaio eta izangaiak galdu egingo ditu karrerako funtzionario izendatua izateko eskubide guztiak, Administrazio Batzordeko presidentearen foru agindu arrazoitu baten bidez.

14. KARRERAKO FUNTZIONARIO IZENDATZEA ETA LANPOSTUAZ JABETZEA.

Ebaluazio Batzordeak prestakuntza eta praktika aldia gainditu duten izangaien zerrenda helaraziko dio Administrazio Batzordeko presidenteari, karrerako funtzionario izendatzeko proposamen gisa, deialdi honetako lanpostuetara atxikita, 3.3 oinarrian egindako aukeraren arabera.

Izendapenak ALHAOn argitaratuko dira. Izendatuek hilabeteko epean hartu behar dute jabetza karrerako funtzionario gisa, izendapena egiten duen foru agindua ALHAOn argitaratzen den egunaren hurrengotik aurrera.

Ezarritako epean jabetza hartzen ez dutenek, eta ezinbesteko kasuetan salbu, galdu egingo dituzte Erakunde Autonomoko karrerako funtzionario izateko eskubideak.

Kasu horretan eta ez bada prestakuntza eta praktika aldia gainditu, Administrazio Batzordeko presidentek oposizio libreko edo barne sustapeneko sistematik prestakuntza eta praktika aldirako behin-behinean hautatutako izangaien zerrenda gehigarri bat osatuko du, arestian aipatutakoagatik hutsik geratu diren lanpostuen besteko izangaiekin, eta oinarri hauetan aurreikusitako prozedura errepikatuko da.

Zerrenda gehigarri hori Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren www.arkauteakademia.eus web orrian argitaratuko da, zerrenda horretako pertsonen eskaera-orrian adierazitako helbidean edo helbide elektronikoan jakinaraztearen katerik gabe.

15. ALDI-BATERAKO LAN POLTSA.

Oposizio libreko sistemaren bidez ariketak gainditu dituzten izangaien behin betiko zerrendan egonagatik ere karrerako funtzionario izendapena lortu ez duten pertsonak lan-poltsa bat osatuko dute, zerrenda horretako ordenaren arabera, eta lan-poltsa hori inspektoreorde kategoriako aldi baterako beharrei erantzuteko erabiliko da. Lan-poltsa hori Erakunde Autonomoak horretarako ezarriko dituen arauen arabera kudeatuko da, eta utziko ditu ordura arte erabilitako beste edozein lan-poltsa baliogabetuko du.

Aldi baterako behar horiei erantzuteko, deialdi honetan onartuak izateko eskaerak onartzeko epearen amaieran eskakizun guztiak betetzen dituztela egiaztatu beharko dute lan-poltsa osatzen duten pertsonen deia egiten zaienean, bai eta lanpostu bat aldi baterako betetzeko eskaintza egiten denean lanpostu horri dagokionez eska litekeen beste edozein ere.

Azkenik, aldi baterako beharren arabera, Zereginak egiteko gaitasun funtzionala egiaztatze osasun-azterketak egiteko eta/edo deialdi honetako oposizio faseko hirugarren ariketan aurreikusitako pareko proba fisikoak egiteko deia egin ahalko zaie lan-poltsako pertsonen. Osasun-azterketak ez gainditzeak edo horiek egin nahi ez izateak behin betiko lan-poltsatik kanpo geratzea ekarriko du, eta proba fisikoak ez gainditzeak lan-poltsatik kanpo geratzea, horiek gainditzen ez diren bitartean.

16. AZKEN ARAUAK Oinarri hauetan aurreikusi gabekoetan, hautaprobak lege-arau hauetan ezarritakoaren arabera egingo dira:

- 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, enplegu publikoaren oinarritzko estatutuaren testu bateratua onartzen duena.

- 6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoarena.
- 30/1984 Legea, abuztuaren 2koa, Funtzio Publikoa eraberritzeko neurriena.
- 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakume eta Gizonen berdintasunerakoa.
- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.
- 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, Datu Pertsonalen Babesarena.
- Langileak Estatuaren Administrazio Orokorren zerbitzura sartzeko, Estatuaren Administrazio Orokorreko lanpostuak hornitzeko eta funtzionario zibilen sustapen profesionalerako Arautegi Orokorra, martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretuaren bidez onartua.
- Toki araubidean indarrean dauden lege xedapenen testu bateratua, apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua.
- 86/1997 Dekretua, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duena.
- 10/1998 Foru Araua, martxoaren 31koa, Arabako Foru Administrazioan eta Arabako Lurralde Historikoan euskararen erabilera normalizatzeari buruzkoa.
- 297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien baliokidetzak finkatu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailletara egokitzen dituena.
- 47/2012 Dekretua, apirilaren 3koa, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzearena eta hizkuntza tituluen eta ziurtagirien bidez euskara maila egiaztatzetik salbuestearena.

17. DEIALDIAREN AURKA EGITEA.

Interesdunek oinarri hauen, horien ondoriozko administrazio egintza guztien eta epaimahaien jardunaren aurka egin dezakete, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, eta uztailaren 13ko 29/1988 Legeak, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duenak, jasotzen dituzten kasu eta eretan.

I. ERANSKINA MEDIKUNTZAKO BAZTERKETEN TAULA

«OSASUN AZTERKETA»

A. Bazterketa orokorra.

1. Prebentzio eta Laneko Osasun Zerbitzuko medikuaren iritziz, inspektoreorde funtzioa betetzeko mugak jartzen dituzten gaixotasun, sindrome eta gorputz-akatsak izatea.

Era berean, alterazio horiek baztertzeko arrazoitzat jo ahal izango dira hautaketa prozesuaren edozein alditan agertzen direla ere.

2. Inguruabarreko baztertzetat joko dira, azterketa egiterakoan bazterketa-taulan sartuta egon arren, bidezko tratamendu mediku-kirurgikoaren bidez zuzen daitezkeen gaixotasun eta lesio aktiboak. Kasu horietan, osasun zerbitzuko medikuek beste epe bat jarri ahal izango dute, ikasturtea hasi aurretik, izangaiaren osasun-egoera egiaztatzeko. Hori egin ondoren, inguruabarreko baztertze-arrazoiak desagertu diren ziurtatuko du.

B. Ikusmena.

3. Zuzenketarik gabeko begi-zolitasuna: ez da ikusmen arruntaren 6/10 baino txikiagoa izango begi bakoitzean.

4. Ikusmen-eremuaren murrizketa aipagarriak.

5. Koloreak ikusteko alterazioa, Prebentzio eta Laneko Osasun Zerbitzuko medikuaren iritziz, inspektoreorde funtzioa oztopatzen duena.

6. Prebentzio eta Laneko Osasun Zerbitzuko medikuaren iritziz, inspektoreorde funtzioa oztopatzen duten bestelako oftalmologia prozesuak.

C. Entzumena.

7.1- Entzumen-zolitasuna (entzuteko protesirik gabekoa).

7.2-Ez dira onartuko bi aldeetako ondorengo entzumen-galtze hauek baino handiagoak:

30 dezibelio 750 hertzioko frekuentzian.

30 dezibelio 1.000 hertzioko frekuentzian.

30 dezibelio 2.000 hertzioko frekuentzian.

50 dezibelio 4.000 hertzioko frekuentzian.

60 dezibelio 6.000 hertzioko frekuentzian.

7.3- Zorabioak eta patologia vestibularragatiko orekaren bestelako alterazioak.

8. Zuzenean zein lanerako erabiltzen diren komunikazio-bideen bidez, ahozko komunikazioa zailtzen duten fonazio-arazo handiak.

9. Prebentzio eta Laneko Osasun Zerbitzuko medikuaren iritziz inspektoreorde funtzioa betetzea eragozten duten bestelako otorrinolaringologia prozesuak.

D. Nerbio-sistema.

10. Prebentzio eta Laneko Osasun Zerbitzuko medikuaren iritziz inspektoreorde funtzioa betetzea eragozten duen hitz-toteltasuna.

11. Epilepsia zein gaixotasun horren aurrekariak. Fitxatu gabeko konbultsioak. Edozein etiologiako dardara.

12. Mugimendu-urritasuna.

13. Prebentzio eta Laneko Osasun Zerbitzuko medikuaren iritziz inspektoreorde funtzioa betetzea eragozten duten bestelako neurologia prozesuak.

E. Buruko egoera.

14. Intoxikazio exogenoa adierazten duten sintomak zein zantzu kliniko biologikoak (Gernuan legez kanpoko droga-metabolitoak antzematea). Toxikomaniak. Alkoholismoa.

15. Prebentzio eta Laneko Osasun Zerbitzuko medikuaren iritziz inspektoreorde funtzioa betetzea eragozten duten bestelako buru nahaste eta jokabide nahasteak.

F. Lokomozio-aparatua.

16. Inspektoreorde funtzioetarako beharrezko edozein artikulazioren mugatze funtzionala.

17. Inspektoreorde funtzioak mugatzen dituzten bizkarrezurreko arazoak.

18. Aparatu lokomotorreko beste edozein prozesu, Prebentzio eta Laneko Osasun Zerbitzuko medikuaren iritziz, inspektoreorde funtzioak betetzeko ahalmenak mugatzen dituena.

G. Sistema kardiozirkulatorioa.

19. Gabezia kardiakoa. Gabezia kardiako bihur daitezkeen gaixotasun kardiakoak.

20. Arritmia kardiako larriak.
21. Sendagaien bidezko tratamendua eskatzen duen arterietako hipertentsioa.
22. Gorputz-adarretako zainen zirkulazioaren eta zirkulazio linfatikoaren arazo kronikoak, mugatu egiten dituztenak inspektoreorde funtzioak gauzatzeko ahalmenak.
23. Aparatu kardiozirkulatorioko beste edozein arazo, Prebentzio eta Laneko Osasun Zerbitzuko medikuaren iritziz, mugatu egiten dituen inspektoreorde funtzioak gauzatzeko ahalmenak.
- H. Giltzurrunen sistema.
24. Giltzurrunetako gabezia. Giltzurrunen gabezia bihur daitezkeen giltzurrunetako gaixotasunak.
25. Beste giltzurrun-arazo batzuk, Prebentzio eta Laneko Osasun Zerbitzuko medikuaren iritziz, mugatu egiten dituztenak inspektoreorde funtzioak gauzatzeko ahalmenak.
- I. Arnas aparatua.
26. Arnas gaixotasunak, eragin iraunkorra edo aldi behingoa dutenak arnas funtzioan.
27. Bronkioetako asma, Prebentzio eta Laneko Osasun Zerbitzuko medikuaren iritziz, mugatu egiten dituen inspektoreorde funtzioak gauzatzeko ahalmenak.
28. Bat-bateko pneumotoraxa (behin baino gehiagotan), ondoren zuzenketa kirurgikoa egin denean salbu.
29. Tuberkulosi aktiboa (tratamendua jasotzen egon arren).
30. Arnas aparatuko beste edozein prozesu, Prebentzio eta Laneko Osasun Zerbitzuko medikuaren iritziz, mugatu egiten dituen inspektoreorde funtzioak gauzatzeko ahalmenak.
- J. Digestio-aparatua.
31. Edozein bilakabide-sasoitako hepatopatiak.
32. Hesteetako handitze-gaixotasun kronikoak.
33. Erresekzioak digestio-hodiko edozein zatitan (apendizetomia salbu), mugatu egiten dituztenak inspektoreorde funtzioak gauzatzeko ahalmenak.
34. Beste edozein digestio-patologia, Prebentzio eta Laneko Osasun Zerbitzuko medikuaren iritziz, mugatu egiten dituen inspektoreorde funtzioak gauzatzeko ahalmenak.
- K. Dermatologia.
35. Orban erretraktilak edo zereginak mugatzen dituen beste edozein lesio.
36. Beste edozein arazo dermatologiko, Prebentzio eta Laneko Osasun Zerbitzuko medikuaren iritziz, mugatu egiten dituen inspektoreorde funtzioak gauzatzeko ahalmenak.
- L. Hematologia.
37. Odoleko eta organo hematopoietikoko gaixotasunak, kronikoak edo progresiboak, Prebentzio eta Laneko Osasun Zerbitzuko medikuaren iritziz, mugatu egiten dituztenak inspektoreorde funtzioak gauzatzeko ahalmenak.
- M. Zenbait patologia.
38. Diabetes mellitusa.
39. Prozesu neoplasikoak.
40. Gaixotasun immunologiko eta erreumatologikoak.
41. Gaixotasun infekzio-kutsagarriak.
42. Beste edozein prozesu patologiko, Prebentzio eta Laneko Osasun Zerbitzuko medikuaren iritziz, mugatu egiten dituen inspektoreorde funtzioak gauzatzeko ahalmenak.

II. ERANSKINA

A. Gai orokorrak

1. gaia. Espainiako Konstituzioa: Oinarrizko eskubideak eta askatasun publikoak (10-55 art.)
2. gaia. Europar Batasuna. Erakunde eta organismo nagusiak, eraketa eta eskumenak: Kontseilua, Batzordea, Parlamentua, Justizia Auzitegia, Europako Kontuen Auzitegia, Eskualdeen Batzordea, Europako Inbertsio Bankua.
3. gaia. Euskal Herriko Autonomia Estatutua. Atariko titulua (1-9 art.). I. Titulua: Euskal Herriaren eskumenak (10-12 art.). II. Titulua: Euskal Herriaren aginteak (24-39 art.).
4. gaia. Arabako Biltzar Nagusiak eta Arabako Lurralde Historikoko Foru Administrazioa (I). 1983ko martxoaren 7ko Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketari buruzkoa (1-14 art.).
5. gaia. Arabako Biltzar Nagusiak eta Arabako Lurralde Historikoko Foru Administrazioa (II). 1983ko martxoaren 7ko Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketari buruzkoa (15-33 art.).
6. gaia. Enplegu Publikoa (I). 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena. Langile motak (8-13 art.). Enplegatu publikoen eskubideak (14-20 art.). Enplegatu publikoen eginbeharrak. Jokabide Kodea (52-54 art.).
7. gaia. Enplegu Publikoa (II). 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen du. Zerbitzu-harremana hartzea eta galtzea (55-68 art.).
8. gaia. Administrazio Prozedura. 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. Jarduketa arau orokorrak (13-28 art.). Epe-mugak eta epeak (29-33 art.). Egintzen efikazia (37-42 art.).
9. gaia. Sektore Publikoko Kontratuak. 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen testu bategina onartzen duena. Legearen xedea eta aplikazio-eremua (1-4 art.). Kontratu motak (5-11 art.). Administrazio-kontratuak eta kontratu pribatuak (18-21 art.).
10. gaia. Datuen babesa. Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzkoa. Xedapen orokorrak (1-3 art.). Datuak babesteari buruzko printzipioak (4-12 art.). Pertsonen eskubideak (13-19 art.).
11. gaia. Gardentasuna. 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa. Aplikazio-eremu subjektiboa (2-4 art.). Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea (12-16 art.). Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea gauzatzea (17-22 art.).
12. gaia. Berdintasun politikak. Printzipio nagusiak eta babesa. Politika publikoak: printzipio orokorrak (martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako: 3-22 art.) Euskal Herriko herri administrazioen esparruko neurriak (Eusko Legebiltzarraren 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoa (18-22 art.).

B. Su itzaltze eta prebentzioari buruzko gai orokorrak

13. gaia. Foru Izendegia: Kuadrillak, Udallerriak, Kontzejuak eta Herriguneak.
14. gaia. Arabako Geografia eta Geomorfologia: Orografia (mendiak, ibaiak eta urtegiak), bide-sarea (udallerriak, eskualdeak, industrialdeen kokapena, elementu historiko-artistikoak, natura-guneak, tokiko parkeak eta interes turistikoa duten lekuak, eta komunikazio-bideak eta horien sailkapena) eta Arabako udalerrien demografia.

15. gaia. 1/2017 LEGEGINTZAKO DEKRETUA, apirilaren 27koa, Larrialdiak Kudeatzeko Legearen testu bategina onartzen duena (EHAA 84. zk., 2017ko maiatzaren 5ekoa).
16. gaia. 260/2010 Erabakia, maiatzaren 4ko Diputatuen Kontseiluarena, Arabako Lurralde Historikoko Larrialdietako Foru Plana (ALHLP) onartzen duena. (1 Oharra).
17. gaia. Maiatzaren 22ko 513/2017 Errege-Dekretua, suteen kontrako babes instalazioen erregelamendua onartzen duena. (BOE 139. zk., 2017ko ekainaren 12koa).
18. gaia. Tuneletako suteetan esku hartzea. Eusko Jaurlaritza. ISBN 84-457-2341-3. (1 Oharra).
19. gaia. Suteen ikerketen hastapenak. Eusko Jaurlaritza. ISBN 978-84-457-2536-8. (1 Oharra).
20. gaia. 840/2015 Errege Dekretua, irailaren 21ekoa, istripu larrietan gai arriskutsuak tarteko direnean sortzen diren arriskuak kontrolatzeko neurriak onartzen dituena (BOE 251/2015).
21. gaia. Arnasbideak babesteko ekipoak. Sua itzaltzeko baliabideak. Operazio eta instalazioak, hodi malguekin. (Suhiltzaileen Eskuliburua; 4.1 eta 4.2- 1 oharra).
22. gaia. Esku-hartzearen lege-alderdiak: Erantzukizunak, betebeharrak eta eskubideak (Suhiltzaileen Eskuliburua, 5.3 liburukia -1 oharra).
23. gaia. Agindua, 2016ko otsailaren 1ekoa, Segurtasuneko sailburuarena, Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistemaren taktika operatiboak onartzen dituen eta Larrialdietan Koordinatuta Esku hartzeko Zerbitzua sortzen duen Agindua hirugarren aldiz aldatzekoa (EHAA 26. zk., 2016ko otsailaren 9koa).
24. gaia. Su itzaltze zerbitzuetako agintea eta kontrola. Eusko Jaurlaritza. ISBN 84-457-1851-7. (1 oharra).
25. gaia. Lehetasunezko ibilgailuentzako zirkulazio arauak. Zerbitzuko ibilgailuen funtzionalitatea eta erabilera.
26. gaia. Erreskatea trafiko-istripuetan (Suhiltzaileen Eskuliburua; 1.1 -1 oharra).
27. gaia. Lanak eta erreskatea altueran. (Suhiltzaileen Eskuliburua; 1.2-1 oharra).
28. gaia. Suhiltzaileentzako osasun larrialdiak. (Suhiltzaileen Eskuliburua; 1.4-1 oharra).
29. gaia. Erreskatea ur-azalean. (Suhiltzaileen Eskuliburua; 1.3-1 oharra).
30. gaia. Basoetako suteak. (Suhiltzaileen Eskuliburua; 2.3-1 oharra).
31. gaia. Ponpak. Suhiltzaileentzako oinarrizko hidraulika. (Suhiltzaileen Eskuliburua; 4.3-1 oharra).
32. gaia. SISZen ibilgailuak. (Suhiltzaileen Eskuliburua; 4.4-1 oharra).
33. gaia. Suteen kontrako printzipioak (Suhiltzaileen Eskuliburua; 2.1-1 oharra).
34. gaia. Barruko suteak (Suhiltzaileen Eskuliburua; 2.2-1 oharra).
35. gaia. Suteen prebentzioa. (Suhiltzaileen Eskuliburua; 2.4-1 oharra).
36. gaia. Arrisku naturalak. (Suhiltzaileen Eskuliburua; 3.1-1 oharra).
37. gaia. Arriskua, gai arriskutsuak tartean dauden istripuetan. (Suhiltzaileen Eskuliburua; 3.2-1 oharra).
38. gaia. Banaketa-sareak eta instalazioak. (Suhiltzaileen Eskuliburua; 3.3-1 oharra).
39. gaia. Eraikuntza-printzipioak eta egiturak egonkortzea. (Suhiltzaileen Eskuliburua; 3.4-1 oharra).
40. gaia. Larrialdiko psikologia. (Suhiltzaileen Eskuliburua; 5.4-1 oharra).
41. gaia. Irudikapen grafikoak eta topografia. Neurketa-unitateak, eskalak, adierazpen-sistemak, krokis-jasotzea, topografiako maldak eta distantziak eta topografiako planoak.
- 1 oharra. Dokumentu hau Enplegu Eskaintza Publikoaren -foru suhiltzaileak- atalean dago ikusgai <http://www.araba.eus/>.

III. ERANSKINA

Gai espezifikoak

42. gaia. 153/1997 Dekretua, 1997ko ekainaren 24koa, Larrialdiei aurregiteko bidea-LABI deritzan Euskadiko Herri Babeseko Plana onartzen duena eta larrialdiei aurre egiteko euskal sistemak dituen integrazio-bideak arautzen dituena (EHAA, 138 zk., 1997ko uztailaren 21ekoa). 1/2015 DEKRETUA, urtarrilaren 13koa, zeinaren bidez onartzen baita berrazterketa berezi bat egitea «Larrialdiei Aurre Egiteko Bidea - LABI» deritzan Euskadiko Herri Babeseko Planean (EHAA, 14. zk., 2015eko urtarrilaren 22koa).

43. gaia. 80/2016 EBAZPENA, abenduaren 27koa, Erakunde Harremanetarako sailburuordearena, Euskal Autonomia Erkidegoko Baso-suteetarako Larrialdiko Plan Berezia onartzeko Erabakia, Jaurlaritzaren Kontseiluak hartutakoa, argitara ematea xedatzen duena. (EHAA, 7 zk., 2017ko urtarrilaren 11koa).

44. gaia. 3/2015 Ebazpena, urtarrilaren 14koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrekiko Harremanetarako zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Uholdeen ziozko Larrialdiko Plan Berezia onartzeko Erabakia, Jaurlaritzaren Kontseiluak hartutakoa, argitara ematea xedatzen duena (EHAA, 13 zk., 2015eko urtarrilaren 21ekoa).

45. gaia. 10/2001 Ebazpena, abuztuaren 1ekoa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrekiko Harremanetarako zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko errepideez eta trenbideez salerosgai arriskutsuak garraiatzeak dakarren arriskua dela-eta sor daitezkeen larrialdiei aurre egiteko Plan Berezia onartzen duen Jaurlaritzaren Kontseiluaren Erabakia argitaratzea xedatzen duena (EHAA, 189. zk., 2001eko irailaren 28koa).

46. gaia. 400/2013 Dekretua, uztailaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoan artifizio piroteknikoak erabiltzen dituzten ikuskizunei buruzkoa (EHAA, 147 zk., 2013ko abuztuaren 2koa).

47. gaia. 8. Jarraibide Tekniko Osagarria. Artifizio piroteknikoak erabiltzen dituzten ikuskizunak, adituek eginak. 989/2015 Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Piroteknia Gaien eta Kartutxoeren Erregelamendua onartzen duena.

48. gaia. 17/2015 Legea, uztailaren 9koa, Babes Zibileko Sistema Nazionalarena. (BOE 164/2015).

49. gaia. 17/2014 Ebazpena, ekainaren 25ekoa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrekiko Harremanetarako zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko arrisku erradiologikorako larrialdi-plan berezia onartzen duen erabakia, Jaurlaritzaren Kontseiluak hartutakoa, argitara ematea xedatzen duena (EHAA, 131 zk., 2014ko uztailaren 11koa).

50. gaia. 277/2010 Dekretua, azaroaren 2koa, zenbait jarduera, zentro edo establezimenduren autobabes-betebeharrak arautzen dituena, larrialdiei aurre egiteko (EHAA, 238. zk., 2010eko abenduaren 14). Hutsen zuzenketa, honako dekretu honena: «277/2010 Dekretua, azaroaren 2koa, zenbait jarduera, zentro edo establezimenduren autobabes-betebeharrak arautzen dituena, larrialdiei aurre egiteko» (EHAA, 289. zk., 2014ko urtarrilaren 22).

51. gaia. 10/2015 LEGEA, abenduaren 23koa, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jarduerena. (EHAA, 3. zk., 2016ko urtarrilaren 7koa).

52. gaia. Lan Arriskuen Prebentziorako 31/1995 Legea eta horren aldaketak: . I-VII kapituluak, biak barne. Kode elektronikoak. Lan arriskuen prebentzioa, edizio eguneratua, 2016ko ekainaren 24koa.

53. gaia. 379/01 Errege Dekretua, produktu kimikoak biltegitratzeari eta haien jarraibide osagarrii buruzkoa (jarraibideak: MIE-APQ-1, MIE-APQ-2, MIE-APQ-3, MIE-APQ-4, MIE-APQ-5, MIE-APQ-6 eta MIE-APQ-7). BOE, 112. zk., 2001eko maiatzaren 10ekoa, eta okerren zuzenketa, BOE, 251. zk., 2001eko urriaren 19koa.

54. gaia. Informazio meteorologikoa Babes Zibilerako. Meteorologia-hizkera. Meteorologia EAEn. Munduan dauden beste oharpen- eta alerta-sistema batzuk (Babes Zibileko Gidaliburua, eskaneatzeko).

55. gaia. Meteorologia-fenomeno kaltegarriak iragartzeko, segimendua egiteko eta esku-hartzeko protokoloa (V-9, 2016ko martxoaren 17koa) Eusko Jaurlaritza.

56. gaia. Trenbideetako eta gida finkoko garraiabideetako suteen kontrako sistemak (sistemaren ezaugarriak, trenaren lurpeko bideak, lurpeko geltokia eta lurrazaleko eta goiko garraio sistemak).

57. gaia. Babes etxeak eta harrera etxeak babesteko sistema (definizioa, sailkapena, okupazioaren ezaugarriak, sute arazoak eta suteen aurka babesteko estrategiak).

58. gaia. 24/2010 Dekretua, urtarrilaren 19koa, herritarrek Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistemaren duten borondatezko parte-hartzeari buruzkoa.

59. gaia. Eraikuntzaren Kode Teknikoa eta izan dituen aldaketak. 314/2006 Errege Dekretua eta I atala, suteen kontrako segurtasunari buruzko oinarrizko agiria. Barruko suen hedapena. Kanpoko suen hedapena. Mehelinak eta etxaurreak, estalkiak. Ebakuazioa.

60. gaia. Eraikuntzaren Kode Teknikoa eta izan dituen aldaketak. Suteen kontra babesteko instalazioen hornidura. Hurbiltzeko baldintzak eta ingurunea. Irisgarritasuna fatxadatik. Egiturak suarekiko duen erresistentzia.

61. gaia. Eraikuntzaren Kode Teknikoa eta izan dituen aldaketak. SUA oinarrizko agiria: Xedea. Aplikazio-eremua. Aplikatzeko irizpide orokorrak. SUA oinarrizko agiria betetzeko baldintza partikularrak. SUA-A eranskina, terminologia.

62. gaia. 2267/2004 ED (2004ko abenduaren 17ko BOE -303 zk. eta 2005eko martxoaren 5eko BOEn, 55 zk., argitaratutako akats zuzenketa). Industria establezimenduen suteen kontrako segurtasunari buruzko araudia: I-VI kapituluak (bi horiek barne), I. Eranskina, 1.2 eta 1.4 taulak izan ezik, eta II. Eranskina.

IV. ERANSKINA

Proba fisikoak

1go PROBA: IGERIKETA (100 metro)

Igerileku ertzean zutik jarrita, uretara jauzi egin beharko du izangaia seinalea entzutean, eta 100 metro (25 metroko lau luze) egin beharko ditu igerian.

Proban zehar estiloa aldatzeko aukera egongo da. Irteeran izan ezik, ezingo da oinekin igerilekuaren hondoa ukitu, ez eta hormari edo kortxoei heldu ere, atsedean hartzeko.

Era berean, izangaiek azertzaileak ikusteko moduan ukituko du horma bira ematerakoan, eta laugarren luzearen ondoren horma ukitutakoan amaituko da proba.

Irteera baliogabea bada, irteera baliogabea egin duena bakarrik geldiaraziko da. Serie guztiak amaitutakoan, azken serie bat egingo da irteera baliogabea egin duten izangaiekin. Bi irteera baliogabe egiten dituen izangaia kanpoan geratuko da.

Ez da onartuko urpekaritzako elementurik, igerilekurako betaurrekoak izan ezik; nahitaezkoa izango da txanoa erabiltzea.

Izangaiek gehenez ere ondorengo denbora hauetan osatu beharko dute ibilbidea, proba gainditzeko:

ADINA	DENBORA
< 25 urte	< 130''
25-35 urte	< 135''
36-45 urte	< 140''
46-55 urte	< 145''
56 urte eta gorakoak	< 150''

2. PROBA: 2. Proba 2: 2.000 m-ko lasterketa:

– Helburua: proba honen bidez, izangaia intentsitate handiago edo txikiagoko esfortzuak denbora luzeago edo motzagoan egiteko duen erresistentzia-maila ebaluatzen da.

– Probaren deskribapena: Atletismoko pista batean, oinez, korrika edo bi moduetara, 2000 m osatu beharko ditu izangaia ahalik eta denbora gutxienean.

– Izangaiarentzako jarraibideak: «Zuen lekuetara» entzundakoan, izangaia irteera-lerroaren atzean jarriko da, zutik, eta tiroa entzundakoan, lasterketari ekingo dio. Ezingo da iltze-zapatilarik erabili; nahitaezkoa izango da galtza motzak eta mauka motzeko kamiseta edo kamiseta tiraduna erabiltzea.

Behin lasterketa hasita, izangaia ezingo da pistatik irten, kanpoan geratuko baita bestela.

– Neurketa: Saialdi bakarra egongo da. 2000 m-ko distantzia osatzeko behar izandako denbora neurtuko da, arestian aipatu bezala. Neurketa minutu-segundo-ehunekotan (00:00:00) egingo da. Neurketa eskuz, bideo-finish bidez edo bi modutara egingo da, eta edozeinek balioko du.

ADINA	DENBORA
< 25 urte	< 09'00''
25-35 urte	< 10'00''
36-45 urte	< 11'00''
46-55 urte	< 12'00''
56 urte eta gorakoak	< 13'00''

3. PROBA: BERTIGOA

Helburua da izangaiengan alturako lanetarako jokabide arraroak antzematea. Saialdi bakarra egingo da.

Izangaia suhiltzaileen ibilgailuko eskaileratik igoko da, bi oinekin otarraren oinarria zapaldu arte; ondoren, jaisten hasiko da.

Proba izangaia hasiera gisa markatutako lekuan, ibilgailuaren eskaileraren ondoan, zutik dagoela hasiko da, eta hasierako leku horretan bertan zutik geratzen denean amaituko da.

Otarra 20 metroko altueran egongo da, gutxi gorabehera, eta eskailerak 70° inguruko inklinazioa edukiko du.

Gehienez ere 5 minutu edukiko dira proba osatzeko.

Izangaia behar bezala aseguratu da proba hasi aurretik.

Bertigo probarako saialdi bakarra egongo da, eta adierazitako gehieneko denboran osatzen ez dutenek "ez gai" kalifikazioa edukiko dute.